



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

# Prensa Oharra Nota de Prensa

## Añanako Gatz Harana: LGTB espazio libre eta tolerantea, eta indarkeria matxistaren aurkakoa

**Gesaltza Añana, 2020ko irailaren 17a.** Añanako Gatz Haranak "LGBTB espazio libre eta tolerantea eta indarkeria matxistaren aurkakoa" dela erakutsiko du aste honetatik aurrera. Bisitarien zentroan kartelak jarriko ditu, mundu guztiak ikusteko moduan, baita web orrian ere.

Ana del Val foru diputatuaren ustez, *"urrats garrantzitsua da; izan ere, Fundazioak askatasun, berdintasun eta indarkeria matxistaren aurkako balioak hobeto ikusaraztea dakar, urte osoan zehar, eta horien gainean kontzientziatzen lagundu nahi du; are gehiago, azken aldian atzerantzko joera minoritarioa dagoela kontuan hartuta"*.

Añanako Gatz Haraneko arduradunaren ustez, *"talde kaltebera bateko edozein pertsona ongietorria dela eta naturgunean eroso senti daitekeela esateko modu bat da. Izan ere, gaur egun ere beharrezkoa da herritarren artean sentsibilizazioan inbertitzea, xehetasun txiki horiekin bada ere, eta ez soilik nazioarteko egun horietan aldarrikatzea, urte osoan baizik"*, gaineratu du.